

DIRU ITURRIAK

Gure proiektuak funtzionatzeko eta etorkizunean hazteko, diru iturri ezberdinak erabiliko ditugu. Diru-sarrera nagusiak adinekoen egoitzek eta gizarte-zentroek ordainduko dituzten kuotetatik etorriko dira. Egoitza bakoitzak gure tailerrak kontratatzen dituenean, tailer kopuruaren eta maiztasunaren arabera ordainduko du: astean behin, astean bitan edo hilean hainbat saio. Zenbat eta egoitza gehiagok gure zerbitzua kontratatu, orduan eta diru gehiago jasoko dugu, eta horrek proiektua sendotu eta zabaltzeko aukera emango digu.

Horrez gain, beste diru iturri lagungarri batzuk ere egon daitezke. Adibidez, udalek edo erakunde publikoek diru-laguntzak eman ditzakete, proiektua adineko pertsonen digitalizazioa sustatzeko oso baliagarria delako. Halaber, gizarte- eta hezkuntza-proiektuetarako dauden laguntza publiko eta pribatuetara aurkeztu gaitezke, fondo gehigarriak lortzeko.

Aurreikusten dugu familiek ere ekarpen txikiak egiteko aukera izango dutela, batez ere etxetik ikasi nahi duten adinekoen kasuan. Horretarako, webguneko eduki bereziak edo tailer pertsonalizatuak eskaintzea pentsa dezakegu, prezio eskuragarri eta arrazoizkoekin.

Etorkizunean, baliteke beste diru iturri batzuk ere zabaltzea: adibidez, bideo tutorial bereziak edo online ikastaro sakonagoak eskaintzea, edo teknologia hornitzaile batzuekin hitzarmenak egitea, ekipamendu digitalak (tablet, mugikor, Wi-Fi gailuak...) prezio merkean lortu edo zentroetara eramateko. Hornitzaile hauek babesle modura aritu litezke, eta horrek gure kostuak murriztu eta diru-sarrerak handitu ditzake.

Laburbilduz, gure proiektuaren diru iturriak anitzak izango dira: egoitzen kuotak, erakundeen laguntzak, familiek egin ditzaketen ekarpenak eta etorkizunean sortuko diren zerbitzu berrien sarrerak. Iturri guzti hauek elkartzeak proiektuaren jasangarritasuna eta hazkundera bermatuko du.